

VII. 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpaina martxan da Ermuan eta Mallabian

Irakurzaletasuna bultzatzeko egitasmo hau Euskal Herri osoko 24 herritan gauzatuko da. Tartean Ermuan, eta estreinakoz, Mallabian ere, Orraitio Euskara Elkartek antolatuta, Ikastetxeko Guraso Elkartea eta liburutegiaren laguntzarekin.

Liburuaren Nazioarteko Egunean, apirilaren 23an, abiatu zen 'Irakurri, gozatu eta oparitu' kanpainaren aurtengo edizioa, zazpigarrena. Ekimen honen bultzatzaile den Euskaltzaleen Topagunearen arabera, *"inoizko herri kopuru handiengan ipiniko da martxan, 24tan hain zuzen, iaz baino 9 herri gehiagotan"* eta ekainaren 30era arte luzatuko da.

Urtero bezala parte hartu ahal izateko 3 pausu jarraitu beharko dira:

Lehenengo pausoa **irakurtzea** da; euskaraz irakurtzea. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izango da.

Liburua irakurriz **gozatu**, liburutegira bueltatu, eta fitxa siple bat bete beharko da: zein izan den irakurritako liburua, zer inpresio eman digun eta abar. Fitxa

hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu den dan erabiltzeko.

Azken pausua, liburua **oparitzea** da: lagun bati, senide bati edo norbere buruari. Liburutegian jasotako txartelarekin, euskarazko beste edozein liburu erosteko %25eko deskontua jasoko da, %50a euskaldunon elkartearen kidea izanez gero (gure kasuan, Euskal Birusa edo Orraitiokoa).

Aurkezpena

Euskal Herri osoan burutzen den kanpaina honen aurkezpena apirilaren 18an burutu zen eta bertan gertuko lagunak izan ziren: Manuel Moreno (Topaguneko kidea eta egitasmoko arduraduna), Igone Amesti (Ermuko Euskal Birusa Euskara Elkarteko kide mallabitarra), Sara Gago (Ermuko Udal Liburutegiko arduraduna) eta bestalde Gaizka



Ermuarrak, mallabitarak... aurkezpen ofizialerako irudi.

Olabarri (Durangoko Hitz liburu dendako kidea).

Ermuan, Euskal Birusak antolatzen du kanpaina hau Udal Liburutegiarekin elkarlanean eta Udaleko Euskara Sailaren babesarekin; Mallabian, berriz, Orraitiok antolatzen du, Ikastetxeko Guraso Elkartearen eta Liburutegiaren laguntzarekin. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila zein Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien babesarekin burutzen da ekimena.

"Aurreko urteetan ikusi denez, kanpainak eragin positiboa du herritarrek liburutegi publikoan egiten duten euskarazko liburu mailegu erabileran - diote Topaguneko arduradunek. Izan ere, egitasmoaren helburuetariko bat da euskaltzaleak liburutegi publikoan erabiltzaile bihurtzea. Era berean, ekimenak liburuaren salmentan izaten duen eragina ere kontuan hartzekoa da".

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

T **XALAPARTA**
ABERNA

*Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!*

Erdikokale 13
(Ermua)

ENKARGYAK
943 030 299

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegi bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

J. LUCAS

PINTURA EN GENERAL

630 22 51 36

ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOAK

EGANA

ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR